

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Erripagañako 87 BOEren hasierako esleipendunen zerrenda argitaratu da

*Ekainaren 30ean amaituko den alegazioak aurkezteko aldia ireki da*

Jueves, 18 de junio de 2015

Nafarroako Gobernua, Nasuvinsa sozietate publikoaren bitartez, Erripagañako (Iruña) babes ofizialeko 87 etxebizitzaren [hasierako esleipendunen zerrenda](#) (erosketan) osatu du; horrekin batera, ekainaren 30ean amaituko den alegazioak aurkezteko aldia ireki du.



Etxebizitzak eraikitzen.

Zerrenda herritarren eskura dago Nasuvinsako bulegoetan (San Jorgeko etorbidea, 8, behea, Iruña) Tuterako Nafarroako Gobernuaren Herritarren Arreta Bulegoan (Foruen plaza, 5-6), bai eta Nafarroako Gobernuko [etxebitza-atari](#)an ere.

Zerrenda hori argitaratuta, alegazioak aurkezteko epea zabaldu da; haiek Iruña eta Tuterako Nasuvinsaren bulegoetan aurkeztu beharko dira eta, ebazten direnean, behin betiko esleipendunen zerrenda argitaratuko da. Alegazioetan ezingo dira aipatu eskaera bakoitzaren izen-ematean jadanik balioetsitako alderdiak.

Zerrendak aldatuak izan ahalko dira, baldin eta alegazioaren bat baiesten bada.